


PARADA BASERRIA
A MAILA

PARADA BASERRIA 8



Egile eta data ezezagunak

Deskribapena

XVII. mendean fundatutako baserria. Egun, hiri ingurunean murgilduta dago eta bi bizitzarako erabilera du. Hiru fatxada libre eta mehelin fatxada bat ditu. Fatxada nagusia nabarmendu egiten da azpaduretan, barlasaietan eta inpostetan dituen silarriengatik, eta bi isurkiko zurezko faldoien azpian dagoen erdiko ezkutuagatik. Behe oinaz, lehen oinaz eta estalkipeko oinaz osatzen da, eta estalkiaren mendebaldeko erdiaren berrikuntza bereizten da. Behe oineko baoak garaje sarbide gisa aldatu dira. Alboko fatxada entokatutako harlangaitz hormakoa da, kanpoko eskailera du eta haren baoetako batzuk ez dira jatorrizkoak. Lorategira ematen duen hegoaldeko fatxadak balkoi jarraitu bat du teilatu hegalaren azpian jabaloien bidez eutsita eta bi sarbiderekin.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- * Berariazko erregimena:
Interes historiko-artistikoko probintzia monumentu deklaratu izanaren ondoriozkoa –1964-1-17ko Ministro Aginduaren bidez (52. BOEa, 1964-2-29koa)–.
- * Eragindako ingurunea: adierazitako aginduan ezarritakoa.